

KunArte

BERRIKUNTZA ARTISTIKO ETA LEHEN HAURTZARORAKO ZENTROA
CENTRO DE INNOVACIÓN ARTÍSTICA Y PEQUEÑA INFANCIA
WWW.TEATROPARAISO.COM

KunArte berrikuntza artistikorako zentro bat da, herritarrik txikientzat (0 eta 6 urte bitartekoak) eta haiekin doazen helduentzat (artistak, senideak, irakasleak, ikertzaileak, politikariak eta hedabideak). Lehen haurtzaroarekin lotutako berrikuntza artistikorako zentro bat.

Garai korapilatsu batean gaude, eta eraldaketa eta bilakaera dira haren ezaugarri nagusiak. Gure iritziz, eredu konbentzionalak gainditzeko ordua da, eta ikerketaren, sorkuntzaren eta diziplina artekotasunaren alde egitekoa. Herritarren kultura-kapitalean inbertitzeko unea da, txikienetatik hasita. Izan ere, Eduardo Punsetek dioen bezala, HAURTZARO TXIKIA GIZAKIAREN I+G-KO DEPARTAMENTUA DA.

KunArte, berrikuntza-zentro gisa, eraginkorragoa da proiektu holistiko, integralak, diziplinartekoak, zeharkakoak eta iraunkorrak garatzen baditu; proiektu horiek arte-ekosistemaren eta herritar guztien bizitza hobetzea eragiten dute. Hori da ETORKIZUNA eraikitzeke egiten dugun apustua. Bertan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu 2016/2017 Proiektu Eszenikoen erresidentzia internazionalen bitartez.

HAURTZARO TXIKIA DA:

Esperimentatzeko adin bat, beti baitago aurkitzeko zerbait.

Zurrunmuru poetiko bat, trapuzko mingainez esana.

Etengabe mugitzen diren emozioen zurrumbilo bat.

Zelula txiki-txiki bat eta unibertso osoa.

Inspirazio-itsaso bat, berrikuntzan zehar nabigatzeko.

Beti piztuta dagoen bonbilla bat.

Hazten ari den baso bat.

Labirinto amaigabe bat, hartan galdu eta berriro ere nork bere burua aurkitzeko..





Hiru proiektu-egonaldi antolatu dira. Haietako bakoitzean, lengoaia eszenikoen aniztasuna barne hartzen duten proiektuak aukeratuko dira. Zientzia- eta teknologia-arloetan arte-bilaketa bat egiten duten proiektuak bereziki balioetsiko dira.

ESKATZAILEAK

Egonaldi irekiak dira, eta nazioarteko deialdi publikoak egingo dira. Artistek, konpainiek eta egiturek har dezakete parte, betiere, Haurtzaro Txikiarekin edo, oro har, Haurtzaroarekin bereziki lotutako sorkuntza-proiektu bat aurkezten badute, ahal dela oinarri eszenikokoa. Herritar txiki horiek arte-proiektu baten publiko edo hartzaile gisa aurkitzea helburu duten proiektuak ere onartuko dira.

EGONALDIAREN EDUKIA

Proiekturako kanpo-laguntza izatea, arte-mailan zein kudeaketa- eta produkzio-mailan. Artearen, zientziaren eta teknologiaren arteko loturen inguruko hausnarketa edota esperimentazioa sustatzen duen profesional espezializatu batekin egotea.

KunArteren instalazioak (eremu eszenikoa eta tailerra) eta industria-pabilioi bat erabiltzea, materiala gordetzeko, prestatzeko edota probak egiteko, egonaldiak irauten duen bitartean; gehienez ere, hiru astez.

Zentroko liburutegia erabiltzea. Arteari, arte-hezkuntzari, bitartekotzari eta haur-literaturari buruzko liburu asko egongo dira egonaldia egiten dutenen eskura.

Arte-bitartekotzari buruzko prestakuntza, erreferentziatzen prestakuntza eta esperientzia pertsonala hartuta.

Bitartekotza-plan bat diseinatzea eta garatzea, haurtzaroarekin lotutako proiektu eszenikoaren inguruan.

Ostatua eta 3.000,00 €, egonaldiko gastuetarako.

Sortutako lana KunArteren programazioaren barruan estreinatzeko eta, harekin batera, ikusleekin topaketa bat egiteko aukera.

Prozesuaren komunikazio-jarraipena egitea, eta egonaldiaren eta bitartekotza-ekintzen berri ematea.

BALORAZIO-BATZORDEA

Diziplinarteko batzorde batek ebaluatuko ditu aurkeztutako proiektuak. Batzorde horretan, honako hauek egongo dira: Karraskanekin elkartutako sorkuntza-zentro bateko hiru profesional, Unesco Etxeko Arte Hezkuntzako profesional bat, eta KunArteko bi kide, arte-proiektuarekin eta ikusleria-laboretegiarekin lotuak.

ESKAEREN AURKEZPENA

Eskatzaile bakoitzak izena emateko fitxa bete beharko du. Hartan, bere datuekin batera, curriculum erantsi beharko du, baita egonaldian garatu nahi den proiektuari buruzko txosten bat ere. Gainera, egonaldi horietan parte hartzeko eta KunArte proiektuan inplikatzeko motibazio pertsonalei buruzko gutun bat ere gehitu beharko dute.

Eskaerak helbide elektronikoko honetara bidali behar dira: kunarte@teatroparaiso.com.

Izena emateko azken eguna: 2016ko irailaren 16a



Zuzeneko eta hartzaro txikiarentzako arte-proiektuetarako nazioarteko egonaldiak.

2017. URTERAKO IZENA EMATEKO FITXA

IZENA
ABIZENAK
EGITURA EDO ERAKUNDEA
HARREMANETARAKO TELEFONOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA
JATORRIA

Erantsi dokumentu hauek:

- ⇒ Motibazioei buruzko gutuna
- ⇒ Curriculum (pertsonea edota erakundearena)
- ⇒ Proiektuaren txostena:
 - Erabili beharreko arte-lengoiak.
 - Aurreikusitako lan-plangintza.
 - Zientziarekin eta teknologiarekin dauden loturak.
 - Arte-taldea.